



■ HERNANI

Herritarrentzako zerbitzu berriak, kiroldegian

Klubentzako espazio berriak, haurrentzako ludoteka eta gimnasioko erabiltzaileentzako material eta espazio berriak egokitu ditu Udalak. 'Hernani Oinez' ere aurkeztu du.

AURRERANTZEAN zerbitzu gehiago izango dira aukeran kiroldegian, herritar guzientzat: klubentzako bilerak egiteko gelak eta dokumentazioa gordetzeko takilak egokitu dira; haurrentzako ludoteka jarriko da martxan; eta gimnasioko erabiltzaileentzako bi zinta berri jarriko dira, eta ciclo indoor eta indoor walking gelak irekiko dira. Herrian oinez ibiltzea ere sustatu nahi du Udalak, Hernani Oinez egitasmoarekin. /2

■ URUMEA

Ibilaldirako autobusa, Doberak

Lekeition egingo da aurten, Bizkaiko Ikastolen aldeko Ibilaldia jaialdia. Maiatzaren 19an izango da, eta Dobera elkarteak autobusa jarriko du bertara joateko. Osteguna da izena emateko azken eguna, Hernaniko Laramendi 11ko bulegoan edo 943 33 27 99 telefonoan. ■

■ HERNANI

Eluxka Almandoz, Hernaniko finaletik Espainiakora

Catan mahai-jolas txapelketa antolatu du aurten ere Gaueko komiki dendak, eta bertan, Eluxka Almandoz izan da txapelduna. Besteak beste, udara partean egingo den Espainiako txapelketarako sailkatzea lortu du. /3

■ EREÑOTZU

Bihar bukatuko da, San Antonio jaietako kartel lehiaketan aurkezteko epea

Olak auzo elkarteak antolatu du aurten ere, Ereñotzuko San Antonio jaiak iragartzeko kartel lehiaketa. Edonork hartu dezake parte, eta irabazleak 100 euroko saria jasoko du. Proposamenak aurkezteko epea bihar bukatuko da. /3

GAUR KRONIKAN

Urumea /2-3

Hernaniko EAJ-PNV eta PSE-EE, Agipen elkarteak, Catan txapelketa, laburrak...

Urumeako Kirolak /6-8

Pala, futbola, esku pelota, boleibola, kirol tabla...



Moio, Hernanin aitzindari

Trans Zikloa hasteko, Aimar Elozegi Ansa transexual hernaniarraren kasua gogorarazteko liburua aurkeztuko du bihar, Kattalin Minerrek. /4-5

euskal
pintxo potea

Hernaniko
tabernetan
maiatzaren
13-tik 17-ra

euskal sagardoa
+ Idiazabal gazta
duen pintxoak

2€

Taberna parte hartzaileak eta pintxoak:

APEADERO: Gaztagardo
ARALAR: Elurra
ARRI: Aha
ATXUR: Txapela
EKOS: Taki-Taki
GARIN: Piolin


GURIA: Gaztagi
HARRESI: Idiazalbardau
JOXE MARI: Trufa de Idiazabal
KIXKAL: Legazpi
OTAEGI: Bizar Zuri
TRIPONTZI: Artzai



uztaberri
eguna Hernanin

Maiatzaren 18an, 18:00-21:00
Atsegindegian

2018ko Euskal Sagardoaren
aurkezpena eta dastatzea.



■ HERNANI KIROLDEGIA

Zerbitzu berriak eskura kiroldegian, kirol zale, haur eta klubentzat

Haurrentzako ludoteka, eta kirol klubentzako bilera espazioak sortu dira, eta 20 bizikleta eta 14 eliptika gehiago jarri dira eskura.

OSTIRALEAN aurkeztu zituen Esti Aldeiturriaga, Jarduera Fisikoa eta Kirol zinegotziak kiroldegian martxan jarri diren zerbitzu berriak. Hernani Oinez ekimena ere aurkeztu zuen, bestalde.

Kirol klubei, espazio gehiago Zerbitzuetako bat herriko kirol klub eta bestelako elkarteei begira jarri da martxan. Horrela, espazio batzuk bilerak egiteko egokitu dira. Era berean, materiala gordetzeko gaur egun klubek daukaten lekuaz gain, dokumentuak gorde ahal izateko takilak jarriko zaizkie eskura.

Bestalde, eskola kiroleko koordinatzaileek ere bulego bat izango dute kiroldegian.

Familia kontziliazioa helburua, ludotekak

Familiei begira ere, espazio berri bat jarri da martxan, hain zuzen, «familia kontziliazioa erraztu nahian». Gela bat haurrentzako ludoteka izateko egokitu da. Erabilera librekoa, zaintzarik gabea, eta txikiengatik prestatuko materialez osatutakoa izango da: irakurketa txokoa, eraikuntza



Kiroldegiko zerbitzu berriez gain, herriko oinezko bideen berri eman zuen zinegotziak.

txokoa, margoketa txokoa, jostailuak... izango ditu.

Honekin, haurrak ikastaroak egiten ari diren bitartean, anai-arrebentzako espazio egokia sortzea da asmoa.

Indoor walking eta ciclo indoor gelak, irekita

Azkenik, gimnasioko erabiltzaileentzat ere material gehiago eskura jarriko da. Batetik, bi zinta berri.

Baina, horrez gain, ikastarorik ez dagoen orduetan, indoor walking eta ciclo indoor

ikastaroetako gelak irekiko dira, horrela, 20 bizikleta eta 14 eliptika gehiago erabilgarri egon daitezten.

Oinez ibiltzearen alde

Bestalde, Hernani Oinez egitasmoa ere aurkeztu zuen. Herrian oinez mugitzea du helburu, eta horretarako, informazio panelak jarri dira, bi kiroldegian eta bat Biterin, batetik bestera joateko zein distantzia dagoen eta zenbat denbora behar den jakiteko. Auzoetan ere seinaleak jarri dira. ■

■ HERNANI AGIPAN ELKARTEA

Ogia erosteagatik, hainbat sari opari

Ostegunean ogi dastaketa egingo da.

GIPUZKOAKO 53 okindengik osatzen dute Agipan elkarteak; tartean, Hernaniko Labe Txiki-Ekain,

Sulabe eta Antziolak. Fabrikatzaile haundien aurrean, okindegi tradizionalak eta denda txikiak babestu nahi dituzte, eta kanpaina jarri dute martxan.

Ostiralera arte ogia erosten dutenek hainbat sariren zozke-

tan hartuko dute parte: 9 egonaldi Euskadiko landetxetan, ogitarako labanak, zorroak eta ogi-sortak.

Bestalde, ostegunean Ogia- ren Nazioarteko Egunean, ogiak dastatu ahal izango dira. ■

■ HERNANI PSE-EE

«Zintzilik geratu diren lanak bukatzea», PSE-EEren asmo

PSE-EEren hauteskunde programaren asmo nagusia «auzoak zentrora gerturatzea» da.

UDAL hauteskundeetarako programaren asmo nagusien berri eman du PSE-EEK, hautagai zerrenda aurkeztearekin batera.

Herriak 20.000 biztanle gaitu dituzenez, «neurri horretako edozein herrik dauzkan zerbitzuekin gozatu ahal izateko garaia» dela dio, eta «legegintzaldi honetan denbora galdu» dela, «proiektu asko geratuta egon direlako: Emakumeen Etxea, haur parkea estaltzea, atletismo pista berritzea, Urbietako kalea oinezkoentzako egokitzea, Atsegindegian itxitura jartzea edo auzoak berrurbanizatzea». Hori horrela, «zintzilik geratu diren lanak bukatzea» da sozialisten asmo nagusia, eta era berean, «auzoak zentrora gerturatzea, hainbat zerbitzu eskainiz». Horrez gain, proiektuen artean nabarmendu ditu hainbat zerbitzu publiko hobetzea (kale garbiketa, herri autobusa, udaltzaingoren zerbitzua edo herritarren-

ganako arreta), txotx garaiak sortzen dituen arazoak konponetzea, kirol talde txikien egitura indartzea edo aparkatzeko arazoari konponbidea ematea. Sare sozialetan dago programa.

Talde berria

Ricardo Crespo, Politika Zientziatiko eta Administrazioan lizentziatua izango da berriro alkategaia, eta bigarrena, María Jesús Egido abokatu eta zuzenbidean doktorea, Gipuzkoako Batzar Nagusietako batzarkidea izana. Hirugarrena, Jesús Mari López independentea izango da, CAFeko langilea eta Karabelgo bizilaguna, Podemos utzitakoa. Taldekide berri eta independenteak edota buruzagi sozialista historikoek osatuko dute zerrenda: Nieves Jiménez, Pablo Peñacoba, Guillermo Pérez, Manolo Bello, Paulino García, José Antonio Gorjón, José Morcillo edota José Pérezek. ■

■ HERNANI GIBELALDE

Lorezaintzan trebatzeko, izen-ematea

Gibelalde, Lizeagako auzo elkarteak lorezaintzan trebatzeko ikastaroa antolatuko du, eta izena eman eta informazioa eskuratu ahal izateko bi hitzordu jarri ditu. Bat gaur, 19:30etan Larramendi 11ko bulegoan, eta bigarrena, ordu eta leku berean, ostegunean. ■

■ HERNANI ARALAR TABERNA

Mus partidak Aralarren, aste osoan

Hasi da Aralar tabernako mus txapelketa, eta atzo hasita, aste honetan ere ia egunero izango dira partidak. Gaur, Txema-Platanito, Joxe Ramon-Pacoren kontra; Ander-Arkaitz, Iñigo-Josetxoren kontra; eta Beloki-Andres, Julio-Mantxaren kontra. Bihar, beste hiru partida izango dira: Txema-Maggi/Julen-Ugaitz; Nico-Paste/Xabi-Iñaki; eta Kano-Joxian/Xarpa-Mitxelena. Beste hirurak, ostegunean jokatuko dira: Mikel-Iñaki/Felix-Javi; Agurtzane-Ander/Mathius-Aner; eta Carlos-Javi/Gorka-Matilla. ■

HARATZAGO

IBILALDIA LEKEITIO 2019

Gurekin autobusez, Hernanitik HARATZAGO Lekeitiora!

Eguna: Maiatzak 19
Izena emateko azken eguna: maiatzaren 16a
Prezioa: Bazkideak 10€
Gainerakoak 12€

Irteteko: Atsegindegian 09:00etan
Itzultzeko: Lekeition 19:00etan
Larramendi 11, behea - HERNANI
943 33 27 99 - dobera@dobera.eus

■ HERNANI EAJ-PNV

«Auzoak eta herritarren bizi-kalitatea hobetzea helburu», EAJko zerrendagaiek

Hauteskundeetarako hautagai zerrenda eta programaren berri eman du EAJk. «Anbizio haundikoa» baina «egingarria» dela dio.

HAINBAT proiektuko programa proposatu du udal hauteskundeetarako EAJk, hautagai zerrenda aurkeztearekin batera. Proiektuak «anbizio haundikoa» direla dio, baina «barne kudeaketa onarekin, prestatutako zinegotziekin, eta beste erakundeekin elkarlanean arituta, egingarriak».

Besteak beste, asmoa azaldu du trafikoa berrantolatzeke, taxi gidari, herritar eta merkatariekin batera; Milagrosan eta Karabelen bi aparkaleku eraikitzeke; Portu-Elizatzko eta

Etxeberrin igogailuak eraikitzeke; Zinkoeneako alde bateko trafikoa kendu eta Urumea pasealekua hobetzeke; Etxeberri parean ibilgailu eta oinezkoentzako pasabidea sortzeke, Landaren, Zubipen eta Karabelen eragin gabe; berdintasun politikak bultzatzeko; kirola sustatzeko; merkataritza, industria eta turismo zinegotzi postua sortzeke; Atez Atekoa kentzeke; adinekoren beharrei erantzuteko eta udalak kudeatuko lukeen etxebizitza publikoen parkea sortzeke.

«Hernaniarrek botoa eman dezatela»

Hautagai zerrendari dagokionez, «Hernaniren alde lan egiteko helburua duten emakume eta gizon taldeak osatutakoa» dela azpimarratzen du, afiliatuak eta ez afiliatuak tarteko, hainbat arlotan lan egindakoak eta zinegotzi ere izandakoak.

Hori horrela, eta azken hauteskundeetako emaitzei erreparatuta, «sorpresa» emateko aukera ere ikusten dute. Horretarako, «hernaniarrek botoa eman dezatela» behar dute. ■



Eluxka Almandoz txapelduna, Juanjo Arin eta Fermin Almandoz finalistekin.

■ HERNANI GAUEKO

Eluxka Almandoz, Hernanitik finalera

Gaueko komiki dendak antolatutako Catan mahai-jolas txapelketan Eluxka Almandoz izan da txapelduna, finalean Fermin Almandoz, Borja Martin eta Juanjo Arini irabazita. Horrela, udaran jokatu den Espainiako txapelketarako sailkatu da. Hernani, Iruñea, Andoain eta Hondarribiako 8 jokalarik hartu dute parte aurten, giro ederrean murgilduta. ■

■ URUMEA DOBERA EUSKARA ELKARTEA

Urteko batzarra bihar, Doberak

Dobera Euskara Elkarteak biharko deitu du urteko Batzar Nagusia, eta bazkide guztiak gonbidatu ditu bertaratzera, 19:00etan, Biterin. 2018ko memoria eta balantzea aurkezteaz gain, aurtengo egitasmo eta aurrekontuen berri ere emango da, bai Doberaren aldetik, eta baita Kronikaren aldetik ere. ■

■ HERNANI LITERATURA

Mercé Rodoreda hizpide, gaurko saioan

Literaturari buruz aritzeko saioa izango da gaur, 19:30etan liburutegian. Oraingoan, Ane Mayozen gidatuta, Mercé Rodoredaren lanak hartuko dira kontuan. Hurrengo literatur solasaldia hilaren 21ean egingo da, komikiaren inguruan: Alai Zubimendik gidatuta, Frank Millerren *Batman. El regreso del caballero oscuro* aztertuko da. ■

■ ASTIGARRAGA LITERATURA

Irakurketa Klubean gaur, Jokin Muñoz

Liburutegian bilduko da gaur, 19:30etan, Irakurketa Kluba. Joanes Jauregik gidatuta, Jokin Muñozen *Bizia lo* liburua izango da hizketagai. Saioa doan eta irekia da. ■

■ EREÑOTZU SAN ANTONIOAK

Kartel lehiaketa martxan, bihar arte

San Antonio jaiak iragarriko dituen kartela aukeratzeko lehiaketa jarri du martxan Olak auzo elkarteak, eta biharkoa da lanak aurkezteko azken eguna. Auzo Etxean aurkeztu behar dira proposamenak. Irabazlearentzako 100 euroko saria izango da. ■

■ ARANO-GOIZUETA HEZKUNTZA

Eskola topaketako txartelak, ostiral arte

Arano, Goizueta, Areso eta Leitzako Haur, Guraso eta Eskolen arteko XX. Topaketak egingen dira maiatzaren 25ean Goizuetan. Egun osoko egitaraua prestatu dute, eta tartean, bazkaria ere egingen da; 5 euroan, paella, edaria eta pastak izanen dira 14:00etan. Txartelak aurretik erosi behar dira, eta Estankon daude salgai. Ostirala izanen da erosteko azken eguna. ■

ATE IREKIAK

Maiatzak 18 larunbata 11:00etan

Egun honetan etortzea ezinezkoa bazaizu, deitu: 943 55 19 58

PRESTAKUNTZA
LANBIDEA
ETORKIZUNA

01 OINARRIZKO
LANBIDE HEZIKETA

- Elementu Metalikoen Fabrikazioa

02 ERDI MAILAKO
ZIKLOAK

- Mantentze-lan Elektromekanikoa
- Mekanizazioa

03 GOI MAILAKO
ZIKLOAK

- Animazio Soziokulturala eta Turistikoa
- Sistema Elektrotekniko eta Automatizatuak
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua

*Tren geltokitik 5 minutura eta autobusetik 2 minutura.
Karmelo Labaka 7, 20120 Hernani 943551958

■ TRANS ZIKLOA 'MOIO: GORDETZEA EZINEZKOA ZEN'

«Imajina ezina zen gauza bat zen transexualitatea»

Berdintasun Kontseiluak antolatutako Trans Zikloaren barruan, trans bertso-saioa izango da igandean Tilosetan, baina aurretik, bihar, Kattalin Miner kazetariak 'Moio: gordetzea ezinezkoa zen' liburua aurkeztuko du.

APIRILAREN 23a zen, 2007an; astelehena. Aimar Elozegi Ansa Moio 21 urteko gazte hernaniarrak bere buruaz beste egin zuen, «identitatearen kargak eraginda». Transexuala zen. Argitara atera zuen. «Gordetzea ezinezkoa zen», idatzi zuen agur gutunean. Eta Hernaniko herriak haren nahiari jarraituta, erantzun egin zuen. Plazan egin zitzaion agur zibila, publikoa, irekia. Baina, 10 urteren ondoren, zer geratu da? Galdera hori egin zion Kattalin Miner idazle hernaniarrak, Aimarren laguna ere bazenak, bere buruari orain bi urte, eta liburu bat idazteari ekin zion, Tene Mujika beka jasota.

Aimarren lagun eta familia elkarrizketatu ditu; Ander Elozegi, anaia. Medeak mugimenduko kideak ere bai, eta Maialen Lujanbio bertsolaria edota Iratxe Retolaza, EDO argitaletzeko koordinatzaile izandakoa. Eta «guztia oso ondo borobiltzen duena», Brayán Altimasberes, 12 urte geroago transexuala den hernaniarra. Bihar aurkeztuko da liburu, 19:30etan, Biteirn.

'Moio: gordetzea ezinezkoa zen' dio izenburuak. Baina sarreran aipatzen da memoria ariketa egiteaz gain, publikora salto egiteko beharra, pixkanaka esparru intimoan geratu delako gaia. Zergatik?

K.M.: Egia da hasieran galdera horiek banituela; zer pasa da? Ez dago erantzun bakarra. Uste dut doluak edo jazoera publiko traumatikoak, nahiz eta momentu batean publikoki herri mailan ondo erantzun, dolurako tartea ere behar dutela. Dolu soziala eman zaio, baina ez du inork hartu tiratzen jarraitzeko ardura. Momentuan izan ez zen tabua hala bilakatu da gero. Eta 'tabu' hitza ez zait gustatzen. Gogoratu da gaia, baina terreno pertsonaletan. Uste dut aurkezpenarekin jendea etorriko dela, eta gauza gehiago egin balira urte haue-tan, egongo zela jendea.

A.E.: Jendeak ez ditu horrelako kasuak gertu, eta azkenean, urteak pasatzen dira, inguruko bizitzari erreparatzen diogu, eta ez badaukagu horrelako kasurik gertu, horixe gertatzen da; joaten dela ahazten.



Ander Elozegi Ansa, Aimarren anaia da, Kattalin Minerrek libururako elkarrizketatu duenetako bat.

«Aimarren agur ekitaldian esan zen: 'tabu hauek desagertzen direnean gogoratu herri honetan aitzindari bat izan zela'. Ez zen gogoratzen ari»

«Transexualitatearen kargak hainbeste eragin baitzion, bere buruaz beste egiteraino». Tabuak aipatu dituzue, nahiz eta esaldi hori «epelkeriarik gabe» agertzen den liburuan. Horrela bizi izan dituzue?

A.E.: Ez dakit tabu izan diren. Gertatu zait, adibidez lanean, kasua urrunekoa zutenekin, azaltzen saiatzean, agian ez zela ondo ulertzen, edo erantzunak ez zirela izan espero nituen bezalakoak, eta utzi nion hitz egiteari, errazagoa zelako, bestela, uneoro azalpenak eman behar dituzula ematen duelako. **K.M.:** Uste dut gaur egungo eta orain 12 urteko jakintza eta ezagutza, transexualitatearen ingurukoa, ikaragarria dela, eta hala ere, gaur egun oraindik ez da optimoa, inondik inora ere. Baina orduan ez zegoen erreferen-

rentziarik, elkarterik... Transexualak oso berezituak ziren.

A.E.: Gaur egun 'transexual' hitza ulertu behintzat egiten da, eta hori pauso bat da.

K.M.: Horrek guztiak pisua du, tabua izatea baino gehiago: azaldu beharra, defendatu beharra izango bazenu bezala sentitzea. Gainera, elkarrizketetan, Ander hasten da 'politiko' deitzen erantzunari eta heriotzari berari, eta errepikatzen da elkarrizketa guztietan, batzuetan aho txikiarekin, besteetan oso militantei eta ardurarekin, baina hori ere bazen beldur bat: nola deitu suizidioari 'politiko', transexualitatea bera politiko ez zen momentu batean? Nola ez utzi gaia, 'berak arazoak zituen' pentsaeran? Nola hartu ardura soziala?

Hain zuzen, Aimarrek transparentzia ariketa egin zuen. Liburuarekin ere, gaia azalera da helburua?

A.E.: Ez bada gaiaz hitz egiten, da jendeak inguruan ez daukalako. Liburuarekin memorian geratzen da, izan da, hor dago. Horretarako ikusten nuen oso positiboa, berriro ikusarazteko. **K.M.:** Helburua zein zen baino argiago neukan zer ez nuen egin nahi. Adibidez, ez zen minaren erradiografia bat. Kontatzen zi-

datenaren arabera gauza gogor-rrak ere jaso nahi nituen, baina distantzia batekin, ardura sozial horri erreparatzeko balio zezan. Hau da, zer bizitu genuen, nola bizitu genuen, nola ikusten dugun gaur egun eta nola jaso behar den. Aimarren agur ekitaldian momentu batean esan zen: «tabu hauek desagertzen direnean gogoratu herri honetan aitzindari bat izan zela». Ez zen gogoratzen ari. Hasierako helburuak ez nekien zein ziren, baina memorian oinarritzen da. Anderrek, nik... gogoratuko dugu, baina 10 urteko saltoan jendeak ez daki nor den Aimar. Brayanek ezagutzen du, baina kasualitatez, eta kuriosoa da. Aipatzen du Facebooken ikusi zuela, eta gertukoa da, baina 10 urte gazteago diren askok ez dute ezagutzen. Uste dut honek berriro jarrriko duela gaia mapan eta memorian.

Gaia gizarteratzeak kezka sortu zizuen momentuan, Aimarrek kontatu zizuenean. Orain ere bai?

A.E.: Orain errazagoa egiten zait, urteak pasa direlako eta distantzia batetik errazagoa zaitelako adieraztea. Eta baita ere, urte hauetan guztietan ez ditut hainbeste elkarrizketa izan, baina

TRANS ZIKLOA

Maiatzak 15, Moio: gordetzea ezinezkoa zen liburuaren aurkezpena, 19:30etan Biteirn. Idazlea: Kattalin Miner. Aurkezlea: Danele Sarriguarte Mochales.


Maiatzak 19, trans bertso-saioa, 19:00etan Tilosetan (euria eginez gero, Sandiusterrin). Bertsolariak: Maialen Lujanbio Zugasti, Eli Pagola Apezetxea, Beñat Gaztelumendi Arandia, Miren Artetxe Sarasola, Nerea Ibarzabal Salegi, Geman Urteaga Garmendia. Gai jartzailea: Amaia Agirre Arrastoa.

edukitako batzuetan ikasi dudalako esaten nuenetik zer egiten zen arraroa. Diskurtsoa fintzen joan naiz. Hainbeste azalpen ematen ez naiz hasten, eta beste patxada batekin hitz egiten dut. **K.M.:** Estrategia batzuk daukazuzu, ezta? Uste dut lotuta dijoala, baita ere, justifikatu behar horrekin, jendeak ez dakielako zer den transexuala. Ahaztu, trans femenino edo maskulinoa zer den azaltzeaz. Transexuala zelako bere buruaz beste egin zuen lagun bat daukadala esatean, uste da bere arazoa zela. Baina ez, honen ardura soziala da. Karga asko zituen gaia zen, eta gai asko zituena barruan. Min fasean zaudenean nahi duzun azken gauza da tontakeriak entzun erantzunetan, nahiz eta ez diren txarrera esanak, baizik eta ezjakintasunetik. Baina borroka horrek, ni behintzat, eraman ninduen isiltzera.

A.E.: Ez da edonorekin hitz egitekoa. Aimar hil eta gutxira hasi nintzen lanean, eta sartu berri, gertatua zegoena kontatzen hastea ez nuen argi ikusten. Barruan daramat, egunero pentsatzen dut honetan, baina nola aterako dut gaia. Ez neukan asimilatuta, eta zurrumbilo horretan ez dakizu nola esan ere.

Eta orain bai? Aimarrek transexual zela, gizona zela kontatzean asimilatu beharra zenutela aipatzen duzue. Nola ikasten da?

A.E.: Ahal den bezala. Etxean esan zuenean, denok argi genuen lagundu egin behar geniola, nolabait. Berari gertatzen zitzaoin, eta beraz, nola esango nion ondo edo gaizki iruditzen zaitzaidan? Denborarekin ikasi dut, oso mantso, egia esan. Hasieran pentsatu nuen ahal nuena egingo nuela bidea erraz-



Aurkezpenean bertan salgai egongo da liburua, eta baita Elkar dendetan ere.

«Uste dut Hernaniko herriak, nahiz eta ezjakintasunetik egin, lezio handia eman zuela»

azalpen eman behar ez balitu, errazago litzaioke bizitza, eta arazo gutxiago egongo lirateke.

Hileta zibila eta publikoa egin zitzaion, plazan, Hernanin eta Euskal Herrian ondorio bat utzi zezakeena. Ondorioak aztertzea ere bazen liburuaren helburua. Zein izan dira?

K.M.: Uste dut Hernaniko herriak, nahiz eta ezjakintasunetik egin, lezio handia eman zuela. Nahiz eta ez jakin ezer transexualitatearen inguruan, kalera atera, eta plazan eman zitzaion agurra, ez zen ezer isildu. Bada hor intentzio garbi bat. Baina ezin da hor geratu, ez da nahikoa, jantzi egin behar da. Brayanek oso ondo esplikatzeko du: «intentzioa ona da bai, baina ezjakintasuna... Nire bizitza azalpenak ematen pasatzen dut, pedagogia egiten». Liburua egiteko beka eman zidatenean, oso gogorra izan zen niretzat jazoera bat. Nire galdera zen ea gaur egun transexualentzat bizigarria den gizarte bat eraikitzen ari garen: gimnasiora joan eta aldagelatan gatazkarik ez sortzea, bizitzako aspektu 'txikiagoetan' nola moldatzen ginen ikustea. Eta horretan ari nintzela, Ekai Lersundi ondarruarrak bere buruaz beste egin zuen. Froga argia neukan esateko ezetz, gizarte hau ez dela bizigarria. Orain dela 12 urte egoera zen oso prekariora, ezagutzari dagokionez. Orain ezagutzari eta ikusgarritasuna haundia da, errekurtsio gehiago dago, baina transfobia hor dago. Uste dut borondate eta prestutasun ona gauza bat dela, baina ezezagutzak oraindik kalte handia egiten duela, eta inplikazio faltak, bai gizartearen eta baita instituzioen aldetik ere.

Mentalitatea gutxi aldatu da, hortaz. Zer daukagu ikasteko, txikitik hasita?

A.E.: Sexualitate bereizketa izugarria daukagu. Umea eduki berri dut, eta haurdunaldian, lehendabiziko galdera beti zen neska edo mutila ote zen. Jaiotzerako marka bat daukazu, eta ez lirateke hain zurrunka izan behar.

K.M.: Badirudi arazoa pertsona transexualengan dagoela, manifestatzen duenean egokitu zaion generoa ez dela berak aukeratzen duena. Baina hori da beste arazo baten emaitza,



2007an agur zibila eta publikoa egin zitzaion Hernaniko Plazan, Aimar Elosegiri.

eta da, asignatzen ari garela genero batzuk jaiotzez, eta ez erabakiz. Buelta eman behar zaio. Arazoa ez dago norbanako horietan, ez dago burmuin edo gorputz akatsdun bat, baizik eta sistema hau da sailkatze oso zurrunka dauzkana, eta ezinbestean arrakalak egongo dira. Batzuk sutilagoak; ni lesbiana eta maskulinoa banaiz, arrakala bat naiz, baina urteekin onartu dena. Transexualitatea oso drastikoa da, ukatzen ari zara a edo b, asignazio hori. Eta hor dago mezua: arazoa deszentralizatu behar da pertsona eta gorputz horietatik.

A.E.: Uste dut Brayan dela esaten duena, esan izan duenean gizona dela, jasotzen dituela gizonaren generoari atxikitzen zaizkion gauzak. Eta ez luke horrela behar, zabalagoa da.

K.M.: Esaten du transa dela kontatzean uste dela mutilen arteko harremanak izan behar dituela, eta heterosexuala dela. Egun dagoen transexualitate modalitatea oso muturrekoa da. Ezin duzu tartean geratu. Ezin duzu izan trans maskulino sensible eta homosexuala. Pila bat daude, baina zein da erdua? Gizonetan gizonena izatea. Eta alderantziz: feminitatearen hiperbole bat. Kontuz ibili behar dugu transexualengan gizarte moduan proiektatzen dugunarekin.

Mentalitate aldaketan ezagutzak laguntzen du, baina kontzeptu batzuk ere agian, ez ote dira zurrunegiak? Amaia-Aimar, Moio, nahasmenduaren berri ematen da liburuan.

A.E.: Izenarena uste dut gaizki ulertua izan zela. Aimarrek bere buruaz beste egitean gauzak lotuta utzi zituen, eta idatzita utzi zuen eskelan nahi zuela Amaia-Aimar agertzea, Amaia izan zelako garai luze batean, eta gero, Aimar. Niretzat ez zuen horrelako garrantziarik. Baina gero horrela geratu zen, eta nire ustez, ez zen naturala. Zen Amaia, edo Aimar, edo Moio.

K.M.: Anderrekin hitz egin arte ez nintzen horretaz konturatu, Amaia-Aimar erabiltzen nuen, eta artifiziala izateaz gain, ez da identitarioa. Brayanek, adibi-

dez, sekulako haserre erakusten du horrekin. Azaldu nion beste garai bat zela, eta beste modu batera bizitzen dela. Gaur egungo begiradatik, transa den pertsona batek erabakitzen duen izenez ez deitzea transfobia da zuzenean. Balio izan du oraindik ikasteko.

Nola hobetu, orduan?

A.E.: Koadrilan galdetu izan didate, adibidez, espero dugun umeak zakila edo alua duen... Ez dakit zein den formula. Beti ateratzen dudana gaia da *Hazte Oir* kanpainarena; defendatzen dute alua duena neska dela, eta zakila duena, mutila, eta badirudi, gure inguruan, behintzat, mundu guztiak dakiela ez dela zuzena. Baina hori garbi edukita ere, jarraitzen dugu galdera bera egiten: neska ala mutila? Sailkapen horretan sartzen jarraitzen dugu. Aldaketak ikusten dira, baina falta da fondoa aldatzea, eta zaila izango da, oso sartua baitaukagu. Pixkanaka, legeak aldatuz egin beharko dugu, azkenean mentalitatea aldatu arte.

K.M.: Mantra bat bezala ikasten dugu badaudela bulba duten mutilak eta alderantziz, baina errora jotzen badugu... Jendeari pentsarazi egin behar zaio. Ez bazaizu inguruan tokatu genero edo sexu identitatearen inguruko dilemarik, jarraituko duzu eroso, eta mugituko zara gizartearen ehuneko haundi batek onartzen dituen kodigoetan. Gizarteari dilemak eman behar dizkiozu. Nola konpondu arazoa? Nola hezi gure umeak? Liburuarekin memoria egitea espero dut, baina egungo diskurtsio eguneratua ere jaso dut, eta Brayanek, adibidez, orain 10 urte Aimarren ikuspuntu bera izango luke: Aimarrek ez zuen lorgarri ikusten benetako gizon izatea. Baina Brayanek esaten du hori ez dela helburua, benetako gizona ez dela existitzen. Hamar urteren bueltan, adin bereko gazte baten pentsaera aldatu da, jendeak pentsatu egin duela zer ote den benetako gizona edo emakumea. Debate publikoan jarri behar da gaia, jendeak bueltak emateko eta konponbideak bilatzeko, sozialki aldatzeko. ■

teko, baina ez da natural egiten, izenarekin hasi eta eguneroko mila gauzetan. Esan zuenetik bere buruaz beste egin zuen arte pare bat urte pasa ziren, eta asko ematen du, baina bizitza osoa daramazu modu batera ikusten. Pistak egongo ziren, baina ez nituen ikusten. Gerora pentsatu nuen nahiko agerikoak zirela... Asimilatu genuen ahal genuen bezala, mantso. Joan zenean ere ez genuen guztiz asmilitaua, eta gerora ere horretan segi dugu, eta batzuetan oraindik ere falta zait. Oraindik etxean batzuetan nahasten gara izenarekin. Etxeko esparruan orain dela gutxi arte Amaia esaten jarraitzen genuen.

K.M.: Lagun batek esaten zuen moduan, ez zen onarpen kontua. Imajina ezina zen gauza bat zen transexualitatea. Moio deitzen genion arrazoi argi bat medio: zirelako hiru anai; Paul, Ander eta beraz, Amio behar zuelako. Esaten ari ginen gauza batzuk intuitiboki. Baina transexualitatea bera ez zen aukera bat. Pentsatzen duzu lesbiana izango dela, edo marimutila... Kontua ez da ohitura edo gertutasunagatik asimilatzea, baizik eta buruan ez dagoela kasilla bat leku horretarako, imajinarioan ez dago; ez sozialean eta ez zuk eraikitakoan. Dituzu gizonak eta emakumeak. Horrela jaiotzen dira, eta kitto. Beste aukera bat bada goela? Uste dut pisu sozialak asko eragiten duela. Gaur egun, nahiz eta ez gertu eduki, dauden erreferente batzuekin, baten batek esaten badizu dena delakoa, badituzu kasilla posible horiek, erreferente horiek. Kostako zaizu gehiago edo gutxiago alda-

keta batzuk egitea, baina orduan ez zegoen aukerarik.

Horrela agertzen da 'kulpa' sentimendua? «Gehiago egin ez izanarena»?

K.M.: Hori aipatzen dut sarrean, suizidioaren inguruko familiarren bi elkarte orain bi urte sortu izana aipatzen duen artikuluarri erreferentzia egitean. Suizidioarekin batera doa kulpa sententzia, besteak beste, gizarte judeo-kristau batean hezi garelako. Eta gero dago eskuetatik ihes egin izanaren sententzia. Hori errepikatzen da liburuan, gehiago delako hori. Nik segituan gainditu nuen heriotza aurreko kulpa hori, nahiz eta beti geratzen den sententzia orain dakiguna jakin izan bagenu beste zerbaite izan zitekeela. Nik pertsonalki neukan bigarren kulpa, orain dela 12 urte azaltzen dena, da memoriarena, eta horregatik dator liburua. Kulpa edo pisu hori emendagarria zen.

A.E.: Nik kulpa sententziarik ez dut bizi izan, baina eskuetatik alde egin izanaren sententzia bai. Ikusten nuen nere burua asimilatzen. Momentuan ez nuen jakin hobeto egiten.

Gizarteari trasladatzea da erantzukizun hori?

A.E.: Gertatu zenean, gizarte osoak bezala, nik ere ez neukan ideiarik ere transexualitatearen inguruan. Beraz, kulpa... Gizarteak aldatu behar luke pila bat horrelako kasuak ez gertatzeko, baina momentuan ez zen oso ezaguna. Orain bai, eta gizarteak ardura haundia dauka. Azkenean, pertsona transexual batek sentitzen badu babesa, hainbeste

■ HERNANI-ASTIGARRAGA PALA

Iriondo, Barrenetxea eta Tolaretxipi txapeldun, lagunaren arteko finalean

Hirukoteak 25-19 irabazi zien, Kerejeta, Macicior eta Barrenetxea herrikideei.

LARUNBATEAN jokatu zituzten, Ereñotzun, Eskolarteko Pala Txapelketaren finalak; eta neska infantiletan, Hernaniko bi talde aritu ziren, aurrez aurre: 25-19 irabazi zuten Maddi Iriondok, Alaitz Barrenetxeak eta Joana Tolaretxipik, txapeldun izateko, Ane Kerejeta, Enara Macicior eta Naia Barrenetxearen kontra; azken honek ezin izan zuen jokatu, min hartuta.

Partidu ederra jokatu zuen boskoteak, eta markagailuan talde bat zein bestea izan ziren aurretik, aldiro. Azkenean, partidu luze eta gogorraren nekea nabaritu zuten gorriek, eta urdinek lortu zuten garaipena.

Ikuskizun ederraz gozatu zuten, Ereñotzuko frontoia bete zuten ikusleek.

Herriartekoan emaitza ona Hernanik, Aian

Ostiralean, bestalde, Herriarteko Txapelketa hasi zuen Hernanik. Aiaren kontrako final zortzirenetan, etxetik kanpo jo-

katu zuten joanekoa, eta hiru partiduetatik bi irabazi zituzten: 20-10 irabazi zuen Lujanbiok buruz buru, 20-12 nagusitu ziren Arandia eta Zubimendi binaka, eta 19-20 galdu zuen Arregik, zazpi barruan.

Astigarragak sailkatzeko aukera, txapeldunen kontra Zailagoa dauka final zortzirenetako kanporaketa, Astigarragak, Herriartekoan. Donostiaren kontra aritu behar izan du, iazko txapeldunaren kontra. Baina, hala ere, ez diote gaizki ekin astigartarrek.

Txomiñenen jokatu zuten joanekoa, larunbat arratsaldean, eta behintzat, bizirik iritsi dira bueltakora, sailkatzeko aukerarekin. Izan ere, bi partidu galdu eta bat irabazi zuten, baina tantoak alde dituzte: 20-8 irabazi zuen Axier Salaberriak zazpi barruan, 16-20 galdu Jon Gelbentzuk buruz buru, eta 19-20 galdu Txoperenak eta Zubirrainek binaka. ■



Eskolartekoaren sei finalista hernaniarrak, domina eta trofeoekin.



Jon Gelbentzu astigartarra, pelota jotzeko prest, buruz buruko partiduan.

■ HERNANI FUTBOLA

Nesken futbol topaketa, Tilosetan

CD Hernanik antolatuta, nesken futbol topaketa egingo dute larunbat honetan, arratsaldeko 16:00etatik aurrera, Tilosetan; eguraldi txarrarekin, Atsegindegín. 2006-2009 urteen artean jaiotako neskei luzatu diete deialdia, eta helburua da, «futbolaren bitartez kirola egin, ondo pasa eta lagun berriak egitea». Horretarako, jolas ezberdinak egingo dituzte, eta zozketak eta sorpresak ere izango dira, aurreratu dutenez. ■

■ HERNANI ESKU PELOTA

Lau t'erdikoaren azken fasera, bost hernaniar

Bukatu dute esku pelotari hernaniarrek, Gipuzkoako Lau t'erdiko Txapelketaren sailkatze fasea; eta bost herriarrek lortu dute azken fasera sailkatzea: Unax Uitzu eta Unai Albeniz kadeteek, Xabier Salaberria jubenilak, eta Iñigo Labaka eta Josu Altuna nagusiek. Beste bost hernaniarrek, berriz, kontsolazio fasea jokatuko dute: Xabier Apaolaza, Mattin Arluziaga eta Oier Garaiar kadeteek, eta Iñigo Urkizu eta Garikoitz Arizmendi nagusiek. ■

ERRUGBIA		
INFANTILAK (SUB16)	Hernani/El Salvador/St. Cugat/Valencia/Vigo	3-7, 7-24, 7-22, 43-7
FUTBOLA		
MUT. OHOREZKO ERREG.	Oiartzun-Hernani	3-0
NSK. GORENGOA	Beti Gazte-Hernani	3-1
MUT. GORENGOA	Gure Txokoa-Mundarro	2-2
MUT. ERREG. PREFERENTIA	Dunboa Eguzki-Hernani	8-0
MUT. ERREG. PREFERENTIA	Oregeta-Mundarro	2-3
MUT. JUB. 1GO MAILA	Hernani-Beti Ona	1-4
NSK. KAD. OHOR. MAILA	Zumaiako-Hernani	6-1
NSK. KAD. 1GO MAILA	Mundarro-Urnieta	3-0
MUT. INFANTE, TOKAK	Mundarro-Vasconia	3-0
MUT. INFANTE, TOKAK	Euskalduna-Hernani	0-3
MUT. INFANTE, TOKAK	Hernani A-Urki B	2-2 (pen. 2-3)
ALEBNAK A	Vasconia-Mundarro	4-1
ALEBNAK A	Lengokoak-Hernani	0-7
BOLEIBOLA		
NSK. KADETEAK	Hernani/Arizmendi Aretxabaleta	3-2
NSK. INF. HONDARTZA	Hernani A/Lizardi C/Summa 3/Summa 4	1-2/1-2/1-2
NSK. INF. HONDARTZA	Hernani B/Lizardi B/Fortuna 2/Summa 4	2-0/2-1/1-2
NSK. INF. HONDARTZA	Hernani C/Lizardi 1/Summa 1/Fortuna 1	1-2/2-0/0-2

ESKU PELOTA		
Hernani		
NAGUSIAK	Intza/Josu Altuna	22-10
NAGUSIAK	Behar Zana/Garikoitz Arizmendi	22-3
KADETEAK	Izurun/Oier Garaiar	22-12
INFANTILAK	Elizazu-Alegria/Mundarro	18-10
INFANTILAK	Manterola-Deskarga/Zumala	18-8
INFANTILAK	Añorga/Eizegi-Martin	18-2
INFANTILAK	Oiarpe/Iturbe-Txinbarreta	18-7
INFANTILAK	Oiarpe/Gorroategi-Lizarazu	16-1
ALEBNAK	Oiarpe/Isasti-Otamendi	16-4
ALEBNAK	Eple/Bengoetxea-Otaño	12-16
Txapelketa pribatuak		
TXAPELAKETA PRIBATUA	Uitzu-Albeniz II/Kurone	22-18
TXAPELAKETA PRIBATUA	Uitzu-Etxarri/Errioxa	3-18
TXAPELAKETA PRIBATUA	Garaiar-Albeniz/Paz Ziganda	7-22
TXAPELAKETA PRIBATUA	Ojuel-Lizeaga/Astiz-Gaskue	22-12
TXAPELAKETA PRIBATUA	Matxinandiarena-Insausti/Murua-Irazustabarrena	5-22
TXAPELAKETA PRIBATUA	Ojuel-Aranza/Barbarejo-Alduntzin	11-22
TXAPELAKETA PRIBATUA	Aimar Garcia de Bikuña/Oier Azpeitia	10-18
TXAPELAKETA PRIBATUA	Ianitz Gorroategi/Enaitz Artola	11-18

TXAPELAKETA PRIBATUA	Unax Arabaolaza/Markel Urdangarin	18-5
SASKIBALOA		
MUT. SENORRAK	Hernani-Mundarro	64-69
MUT. JUN. SEMIF./FINALA	Hernani-Aloña Mendi-Mondragon Unibertsitatea	54-43/63-68
MUT. JUN. SEMIF./3-4	Hernani Tx-Mondragon Unibertsitatea-Aloña Mendi	69-79/41-63
PALA - Eskolarteko finalak		
NSK. INFANTILAK	Barrenetxea-Macicior-Kerejeta/Barrenetxea-Iriondo-Tolaretxipi	25-19
PALA - Eskolarteko finalak		
HERRIARTEKOA	Astigarraga/Donostia	1-2
HERRIARTEKOA	Aia/Hernani	1-2
ERREMONTA		
1GO PARTIDUA	Aldabe-Garces/Etxarri-Aizpuru III	27-35
SAGARDOAREN TXAP.	Uriza-Endika/Uerga-Barrenetxea IV	40-31
3. PARTIDUA	Zeberio II-Agirezabala/Ansa II-Eteberria III	34-40
4. PARTIDUA	Juanenea-Arruarte/Segurola-Zubiri	20-30
ESKUBALOA - Hernani		
NSK. KADETEAK	Hernani/Jauja Sagarmina	17-30
MUT. KADETEAK	Caribe Berri/Hernani	30-15
ESKUBALOA - Astigarraga		
NSK. JUBENILAK	Mundarro-Laubide Iturgintza	21-20

■ GOIZUETA GOIZUTRIL MENDI LASTERKETA

Urumea bailarako 37 korrikalari, Goizuetako parajeak zeharkatuz

212 partehartzaile bildu zituen Goizutrail mendi lasterketak, larunbatean. Felix Loiarteren argazkiak: 'www.kronika.eus'.

PARAJE ederrak eta giro bikaina uztartuta, mendi festa borobila izan zuten Goizuetan, joan den larunbatean. Eta festa horretara, ez zuten hutsik egin, beste urte batez, bailarako korrikalari askok.

37 izan ziren guztira, hiru probetan: 11 goizuetar, 24 her-

naniar, eta bi astigartar. Bikotea osatuta edo 10 kilometroko proban aritu ziren gehienak, baina distantzia luzearekin ere ausartu ziren, bailarako zazpi herritar.

Felix Loiarrek ateratako argazkiak, ikusgai daude interneten: www.kronika.eus. ■

GOIZUTRIL 2019 - SAILKAPENAK			
25 kilometroko lasterketa:			
1 Iñaki Olano Orbegozo 2:10:25	43 Oinatz Sagastibeltza Mariñelar. 2:50:06	86 Joan Llopis Lluch 3:17:34	30 Iñaki Azparren Huarte 1:05:46
2 Xabat Manzisidor Hermina 2:12:09	44 Garikoitz Balerdi Atxega 2:50:20	87 Aritz Larruskain Cedazo 3:20:50	31 Iker Manterola Eizagirre 1:06:06
3 Xuban Ezeiza Zapiain 2:14:56	45 Rosa Uribe Navarro 2:51:01	88 Mikel Resa Garrido 3:21:38	32 Leticia Ainhoa Arrillaga Ezquer. 1:06:11
4 Marxel Bereau Baleztena 2:15:46	46 Ioritz Fuentes Echegoyen 2:52:32	89 Aitor Elizburu Longarte 3:23:05	33 Ibai Azpiazu Carrasco 1:06:16
5 Jokin Gijarro Iruretagoiena 2:18:16	47 Loren Robles Serrato 2:54:37	91 Nerea Arriaga Azkue 3:24:29	34 Iban Barrutia Uralde 1:06:32
6 Xabier Garate Ayestaran 2:18:17	48 Igor Ruiz San Ildefonso 2:54:51	92 Jon Mikel Dambolena Aginaga 3:25:10	35 Jon Ander Olazabal Larrañaga 1:06:43
7 Hodei Lujanbio Apeztekoa 2:19:06	49 Oskar Gaskon Zabala 2:54:57	93 Martin Mitxelena Aristi 3:25:11	36 Ricardo Dominguez Aramburu 1:07:08
8 Unai Ezeiza Jauregi 2:19:50	50 Iñigo Arrieta Guelbenzu 2:55:15	94 Iñigo Uranga Caballero 3:27:04	37 Iñigo Iparragirre Larrañaga 1:07:23
9 Xabier Mugika Letamendia 2:20:47	51 Imanol Estanga Arrizubieta 2:55:34	95 Nacho Erro Mendizabal 3:27:04	38 Josu Aduriz Etxaniz 1:07:29
10 Gotzon Iruretagoiena Lertxundi 2:24:16	52 Beñat Aizpurua Vazquez 2:56:03	96 Amaia Seminario Fonseca 3:28:37	39 Olatz Mitxelena Larreta 1:08:36
11 Unai Gijarro Iruretagoiena 2:24:37	53 Aritz Marquinez Remon 2:56:13	97 Jexux Larretxea Gonzalez 3:40:57	40 Iker Elorza Esnaola 1:08:52
12 Urko Valdivielso Zueco 2:26:38	54 Jon Arrillaga Egiluz 2:58:12	98 Rakel Vicente Hincapie 3:42:20	41 Aritz Bengoetxea Izaguirre 1:09:14
13 Jon Mendizabal Irastorza 2:27:12	55 Ion Izuriaga Notario 2:58:22	99 Imanol Arrizabalaga Ostolaza 4:05:24	42 Gari Albizu Lasa 1:09:21
14 Amair Bernaras Mariño 2:28:59	56 Borja Del Estal Oyarzabal 2:58:48	10 kilometroko lasterketa:	43 Eneritz Aramendi Garmendia 1:09:35
15 Asier Rajado Barberena 2:31:22	57 Aitor Oiarbide Otermin 2:59:09	1 Aritz Mujika Bidaurreta 50:57	44 Alba Azcona Osés 1:09:48
16 Aitor Conde Zabaleta 2:32:38	58 Beñat Kortajarena Olaskoaga 2:59:25	2 Jokin Arretxea Lastiri 51:22	45 Jose Manuel Peña Otaegui 1:09:50
17 Xabier Gonzalez Goti 2:33:16	59 Alex Jimenez Sanchez 2:59:52	3 Nacho Lopez Calvin 52:28	46 Santi Labiano Bereau 1:09:58
18 Julen Berrotaran Macias 2:34:35	60 Raul Rodriguez Suarez 3:00:39	4 Jon Altuna Mendizabal 52:35	47 Ainhoa Etxegarai Elgorriaga 1:10:08
19 Julen Garmendia Pradillo 2:35:07	61 Aitor Artetxe Maritxalar 3:01:49	5 Oier Etxeberria Zubimendi 53:20	48 Aitana Amondarain Eskisabel. 1:10:38
20 Unai Elizagoien Larralde 2:36:46	62 Aritz Sarobe Eguiguren 3:03:25	6 Zohiartze Moral Atela 53:27	49 Jon Azaldegi Lakuntza 1:10:39
21 Ibai Iztueta Olaizola 2:39:03	63 Iñaki Azurmendi Arana 3:04:31	7 Iraitz Iparragirre Amonarraz 53:54	50 Ainhoa Arruti Loiarre 1:11:04
22 Gorka Bermejo Hualde 2:39:16	64 Ramon Orayen Oloriz 3:06:52	8 Ortz Jimenez Ramirez 54:33	51 Aitor Aramendi Lizarribar 1:11:11
23 Juan Arbeloa Yerro 2:41:10	65 Aitor Larrea 3:07:04	9 Isaac Álvarez Carpintero 55:00	52 Igor Asarta Martin 1:11:56
24 Ander Azkue Oria 2:41:10	66 Ruben Astrain Jaunsaras 3:07:08	10 Xabi Intxauspe Ugaldé 55:41	53 Andoni Larralde Etxarte 1:12:14
25 Marxel Bermudez Ruiz 2:42:10	67 Garikoitz Asensio Manterola 3:07:38	11 Eneko Celayeta Galardi 56:09	54 Xabi Aizpuru Bonel 1:12:26
26 Jon Ander Zabaleta Telleria 2:43:54	68 Gonzalo Gomez Rosado 3:08:10	12 Ioritz Aramendi Garmendia 57:29	55 Gorka Itzarbe Ruiz 1:12:50
27 Jon Zabaleta Sudupe 2:43:55	69 Urko Otaño Basurto 3:09:50	13 Ion Mendia Arana 57:46	56 Aritz Zubiri Gamio 1:13:11
28 Asier Huarte Quel 2:43:57	70 Endika Martinez Zulet 3:11:25	14 Aitor Urruzola Balerdi 58:15	57 Maialen Apeztekoa Larrarte 1:13:14
29 Xabier Urrutia Arruti 2:44:46	71 Manolo Menendez Fernandez 3:11:37	15 Jon Iparragirre Iriarte 1:00:46	58 Iosu Delfrade Osinaga 1:13:59
30 Dennis Sorondo Salazar 2:44:48	72 Juanjo Rocha Gonzalez 3:12:46	16 Jokin Uzkudun Aristizabal 1:00:48	59 Imanol Goenaga Martiarena 1:14:15
31 Mikel Iturrate Mendieta 2:46:04	73 Diego Fernandez Galindo 3:13:16	17 Ivan Burguete Plaza 1:00:51	60 Jon Etxegoien Jauregi 1:14:53
32 Beñat Saralegi Izagirre 2:46:49	74 Carlos Hernando 3:13:43	18 Ane Elzaurdia Mentaberri 1:02:53	61 Iker Apeztekoa Eskudero 1:15:38
33 Ugaitz Iturralde Kalonje 2:46:52	75 Periko Juanikorena Erro 3:13:44	19 Eneko Iparragirre Lekuona 1:02:54	62 Gorka Etxeberria Azpiroz 1:15:39
34 Iker Mujika Tejeria 2:46:52	76 Fernando Bozano Garagorri 3:13:59	20 Xabier Barandiaran Ezponda 1:02:57	63 Koxme Makazaga Odriozola 1:15:41
35 Iker Intxausti Urrutibeaskoa 2:47:14	77 Juan Luis De La Mata Rodrig. 3:14:32	21 Mikel Agirresarobe Igiñiz 1:04:11	64 Marta Hernandez Berzosa 1:15:46
36 Julen Guerra Amundarain 2:47:29	78 Gorka Mendia Arana 3:14:32	22 Ibon Toledo Toledo 1:04:17	65 Eneritz Arbelaitz Sarasti 1:16:10
37 Oier Garriz Vallejo 2:48:01	79 Kristian Del Barrio Delgado 3:14:42	23 Mikel Elzaurdia Mentaberri 1:04:22	66 Alfredo Rodriguez Imaz 1:16:27
38 Igor Illarramendi Mendicuté 2:48:04	80 Julen Zuaznabar Abendaño 3:15:07	24 Xabi Etxabe Ibarburu 1:04:37	67 Naroa Uria Olaizola 1:16:54
39 Iñaki Beroitz Blazquez 2:48:09	81 Jose J. Sierra Hermoso 3:17:16	25 Almudena Carvajal Noriega 1:05:04	68 Eneko Asarta Martin 1:17:03
40 Jon Zubillaga Ugartemendia 2:48:27	82 Jose Beruete Beruete 3:17:17	26 Jon Iturbe Mujika 1:05:05	69 Nahikari Hospital Jauregui 1:17:36
41 Andoni Etxezarreta Sagastibel. 2:48:49	83 Ibai Zabaleta Gallastegi 3:17:21	27 Anartz Mendizuri Arbelaitz 1:05:33	70 Juan Manuel Fandiño Galan 1:17:37
	84 Iratxe Alonso Maiztegi 3:17:23	28 Zigor Sagardui Mendieta 1:05:35	71 Mari Jose Hernandez Caro 1:17:45
	85 Xabier Portu Telletxea 3:17:25	29 Ander Iturralde Oñatibia 1:05:37	72 Jonathan Lopez Infante 1:17:47
			73 Irati Rodriguez Inza 1:19:56

25 kilometroko erreleokoa:

- Jon Labaka Eskudero eta Mikel Leal Irastorza 2:34:38
- Juan M^o Negrodo Ruiz eta Maider Fraile Arze 2:39:28
- Iñaki Etxeberria Aranaz eta Patxi Etxeberria Aranaz 2:40:00
- Iñigo Gurrutxaga Arruti eta Ane Fernandez Barrado 2:43:41
- Ivan Sorondo Salazar eta Axier Mingo Arruabarrena 2:45:40
- Fernando Azcona de Simon eta Iñigo Pimoulier Ugarte 2:49:13
- Laiane Arrospe Garmendia eta Iñigo Larrarte Osinalde 2:49:17
- Egoitz Zubiri Gaztelumendi eta Beñat Lekuona Ansa 2:52:41
- Iker Irazoki Mikelarena eta Maider Irazoki Mikelarena 2:54:48
- Aitor Artola Ustoa eta Miren Otermin Gaztañaga 2:56:32
- Mikel Ruiz de Galarreta Etxeberria eta Ibon Fernandez Iradi 2:59:55
- Jon Ander Urdalleta Tolosa eta Iker Zurutuza Olazabal 3:05:52
- Jon Erdozia Igoa eta Mikel Manterola Loyarte 3:09:17
- Aritz Loiarre Ansa eta Mikel Perurena Graziarena 3:20:43
- Egoitz Perez Orella eta Deiene Gurtubai Zameza 3:22:00

*Beltzez, bailarako korrikalariak



MAIATZAK 24, OSTIRALA

17:30 **URNIETA** Egape ikastolako jolastoki estalia

AURRE SALMENTA: HERNANI

- Leokadisti. Urbieta kalea, 6.

URNIETA

- 2KN okindegia. M.Yurramendi 2, udaltxearen ondoan.

ANDOAIN

- Aiurri. Arantzibia plaza.
- Ernaitza liburudenda. Zumea kalea.

SALMENTA EGUNEAN BERTAN:

16:30. Egape ikastolako jolastokiaren atarian.

Antolatzaile

AIURRI

Loguntzaile

EGURALDIA GAUR Eguraldi egonkorrekin jarraituko dugu. Zerua laino gubirekin edo garbi egongo da egun osoan. Eki/ipar-ekialdeko haizeak tenperaturaren igoera oztopatuko du. **Min.7° / Max.19°**

BIHAR Antzera jarraituko du. Zerua laino gubirekin egongo da, goi-laino batzuekin. Ekialdeko eta ipar-ekialdeko haizea ibiliko da, eta tenperatura apenas izango den aldaketarik. **Min.8° / Max.19°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Castilla** Urbieta, 7 (Hernani) **943 552941** **Gauetz:** **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



HERNANI-ASTIGARRAGA SASKIBALOA

Hernaniko mutil juniorrek ezin igoera lortu, etxekoen aurrean

Galdu egin zuten final estua, bigarren urteko juniorrek, Mondragon Unibertsitatearen kontra (63-68). Hernani Txiki, laugarren.

HERNANIKO kiroldegian jokatu da, joan den asteburuan, mutil juniorren Final Fourra, igoera lortzeko. Eta lau taldeen artean ziren, herriko biak: Hernani eta Hernani Txiki; bigarren eta lehenengo urteko juniorrak.

Helduenek lortu zuten final haundira pasea, larunbatean, Aloña Mendiri irabazita (54-43); baina galdu egin zuten bigarren semifinala gazteenek, Mondragon Unibertsitatearen kontra (69-79).

Horrela, Hernani eta Mondragon Unibertsitatea aritu ziren finalean, eta partidu estua eta lehiatua, kanpokoak nagusitu ziren azkenean (63-68). Hernani Txiki, berriz, galdu egin zuen hirugarren posturako lehia, Aloña Mendiren aurka (41-63). Zaleen animorik ez zuten falta izan bi talde hernania-



Hernaniko jokalaririk bat, igandeko finalean, hiru kontrarioen artean.

rek, eta giro ederra izan zen harmailetan, partidu guztietan.

Derbiarekin denboraldiari agur, mutil seniorrek

Senior mailako mutilek, berriz, Urumea bailarako derbiarekin

bukatu zuten Gipuzkoako lehenengo maila, aurreko asteazkenean: Mundarrok irabazi zuen Hernanin (64-69). Hala ere, bosgarren postuan bukatu dute hernaniarrek, 14 garaipenekin; eta 8garren astigarrarrek, 12rekin. ||

HERNANI MARTXA

Xabier Salillas bigarren, Murtzian

Murtzian izan da Xabier Salillas hernaniarra, joan den asteburuan, Alcázereseko ultrafondo proban. 12 orduko lasterketa zen, eta denbora horretan 75 kilometro eginda, bigarren postua lortu zuen hernaniarrak, martxadore bakarra izan arren; korrika aritu ziren, gainerakoak. Hernaniarrak hiru kilometrotan hobetu zuen bere marka: «hasiera bikaina, hurrengo erronka solidarioaren prestaketetan». ||



Xabier Salillas hernaniarra, ezkerretik hirugarren, jasotako sariarekin.

HERNANI BOLEIBOLA

Gipuzkoako finalean, neska kadeteak

3-2 irabazi zioten semifinala hernaniarrek, etxean, Aretxabaletako Arizmendi taldeari.

MAILA ederrean dabilta Hernaniko boleibol taldeak; eta joan den asteburuan, kadete mailako neskek lortu zuten garaipen haundia: Gipuzkoako Txapelketaren semifinala irabazi zuten, Aretxabaletako Arizmendi taldearen kontra (3-2), etxean.

Partidu gogorra izan zuten hernaniarrek, gorabehera askorekin, urduritasuna nabaria izan zelako, bi taldeetan; garrantzia haundiko partidua zen seinale. Primeran ekin zioten etxekoek, 25-17 irabazita aurreneko jokua; baina emaitza berekin irabazi zuen bigarrena, Arizmendik (17-25), Hernaniren jokua behera egin zuela aprobetxatuz. Berdinuagoa izan zen hirugarrena, eta azkeneko tantoak lortuta, 25-27 irabazi eta markagailuan aurreratu zen Arizmendi. Eta hortik au-

rrera, gehien behar zutenean, erakutsi zuten bere joku onena hernaniarrek: 25-15 irabazi zuten laugarrena, berdintzeko; eta desentate estuan, 15-12 nagusitu ziren, majo sufrututa.

Horrela, datorren larunbatean jokatu dute finala, Donostiako Fortunaren kontra.

Infantilek, partidu klabea ostiral honetan

Hondartzako boleibolean aritu dira asteburu honetan, neska infantilak, Donostiako Zurriola hondartzan. Aurreneko aldia zuten hondarretan, «Hernanin ez baitugu praktikatzeko aukerarik», eta kosta egin zitzaizkien.

Eta pistara bueltatuta, ostiral honetan daukate partidu klabea: Summa 2 hartuko dute kiroldegian, eta irabaziz gero, gertu izango dute txapelketa. ||

IRAGARKI MERKEAK

Emakumea lan bila, helduak edo haurrak zaintzen, interna edo externa modura orduka edo egun osoz. **Deitu: 657 957 229**

Pisua salgai Hernaniko erdigunean; 2 gela, sukaldea, sala eta komuna. Egoera onean. **Deitu: 628 116 949**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesiologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA



MARI FE
ARRANDEGIA

NAGUSIA 36 943 550 489



iR
ATZA

Nagusia 32, ASTIGARRAGA
943 55 49 89
ikatzaberna@gmail.com

FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA

Asegururik ba al duzu?

Deitu Orbegozora

24 orduko tlfnoa.
943 33 10 20

www.funerariaorbegozo.com

- * Zerbitzu partikularrak
- * Errentak
- * Zerbitzu seguruak
- * Lekuadaltzak
- * Beilatokiak
- * Eskalak, korreak...



HERNANI ANDOAIN ASTIGARRAGA URNIETA GOIZUETA

Zentrala Latsunbe 7, Hernani